

HERRITARRON ITUNA

Itun honek esparru bat eskaini nahi du solas egiteko, konplizitateak josteko eta adostasunak ehuntzeko, erabakitzeko ariketak edo ariketek behar dituzten jarrerak, adostasunak eta tresnak elkarrekin lantzeko.

ATARIKOA. Zergatik erabaki

Demokrazian sakontzen ari gara. Herritarron ahalduntzea da demokraziaren oinarria. Egunero elkarrekin arituz, egitasmo kolektiboak sortuz eta gure erakundeekin batera kudeatuz eraikitzen da komunitate librea, duina eta demokratikoa. Kultura politiko berria pizten ari da eta herritarrok erabakien parte sentitu nahi dugu. Bizikidetzaren errotzeko, gai guztiak normaltasunez kudeatu behar dira. Demokrazian sakontzeko dauden oztopoak gainditu nahi ditugu.

Erabakitzeko eskubidea herritarron borondate demokratiko eta burujabearen adierazpen demokratikoa da eta bere egikaritzak egitura politikoa hautatzeko aukera ematen du, alde aurretiko eredurik ezarri gabe eta herritarron borondate demokratikoari aurretiko mugarik jarri gabe. Horregatik, egitasmo guztientzako orube komuna eskaintzen du eta bizikidetzaren osasuntsu baten giltzarria da. Autodeterminazio eskubidearen egokitzapen garaikidea da erabakitzeko eskubidea, eta burujabetza auziak era baketsuan kudeatzeko aukera ematen du. Gure herriaren aniztasuna aberastasun iturri da, eta modu demokratikoan kudeatu nahi dugu, orain arte bizikidetzan izan ditugun hormak hautsiz.

Bestalde, munduan aldaketak ari dira gertatzen, eta burujabetza auziak kudeatzeko paradigma berria indartu da. Herritarron burujabetzaren aroa zabaltzen ari da, pertsonen eta herrien eskubideak eta erabakiak ondoen bermatzen dituen tresna gisa. Euskal Herrian, euskal herritarrok osatzen dugun komunitateak baditu nortasuna eta borondatea nazioarteko legedian herriei aitortzen zaizkien eskubide kolektibo guztien jabe izateko. Euskal Herrian erabakitzeko eskubidearen inguruan orain arte josi diren adostasunak ikusita, argi dago herritarrok borondate demokratikoa dugula gure geroa modu librean erabakitzeko. Halaber, tresna instituzionalak ditugu borondate hori bideratzeko. Erakunde horien muga bakarra herritarron borondatea da, edozein dela ere azken hautua.

Gauza guztiez erabaki nahi dugu, denon artean. Gure gizarte-garapena osoa eta jasangarria izan dadin, estatus politikoaren gaineko erabakia kokatzen dugu dinamikaren ardatzean; aldi berean aitortuz erabakitzeko eskubidea pertsonen eta herrien maila eta esparru guztietara iristen dela.

ADOSTEN, BURUJABE. Nola erabaki

Abiapuntu gisa, modu ireki eta dinamikoan osatzen joateko asmoz, Herritarron Itunarekin bat egiten dugun herritarrok, erabakitzeko eskubidea gauzatzeko printzipio nagusi hauek aintzat hartzen ditugu:

1. Burujabetza: Gure herriaren etorkizuna erabakitzea euskal herritarroi dagokigu.
2. Zilegitasun demokratikoa: Galtzaile eta irabazlerik gabeko dinamika indartuz, erabakiaren bidez demokrazian sakondu nahi dugu. Bideari eta emaitzari ematen diogu garrantzia eta zilegitasunez josten den bidearen ondorio diren erabakiak sendotzen eta bermatzen ditugu.



3. Adostasuna: Erabaki eskubidea denon topaleku da. Bizikidetzatza dugu xede, gizarte eta lurralde kohesioa. Adostasunak landuz egin nahi dugu bidea, konfiantza esparru zabalak eraikiz.
4. Legaltasuna: Erabakitzeko eskubidea modu adostuan gauzatzeko borondatea dugu. Edonola ere, Euskal Herriko erakundeetatik sortutako legalitateari lehentasuna emango diogu, herritarron borondate demokratikoaren adierazle gisa.
5. Parte hartzea: Behetik gora hartzen diren erabakien garrantzia azpimarratu nahi dugu, herritarrok erabakien parte sentitu nahi baitugu. Aldi berean, erakundeekin eta eragileekin elkarlana bultzatuko dugu.
6. Eraginkortasuna: Egungo estatus politikoan aurrera pausua emateko eta Etorkizuna irudikatzeko gaitasuna eskaintzen du erabakitzeko prozesuak, eta baita ere etorkizun hori mugarik gabe erabakitzeko bidea.
7. Berdintasun politikoa: Erabakitzeko ariketek bermatuko dute egitasmo guztien zilegitasuna eta maila berean gauzatzeko aukera, baldintza demokratikoak ezarrita.
8. Justizia soziala: Erabakitzeko eskubidea herritarron duintasuna, askatasuna eta berdintasuna bermatzeko tresna da.
9. Ardura: itun honi lotutako pertsonak, bizibide eta irizpide desberdinetakoak izan arren, herri honek jendarte kohesionatu eta praxi demokratikoan oinarritua behar duelakoan, helburu hori lortzeko bidean ardura pertsonal eta kolektiboa sentitzen dugu.

KONPROMISOAK

- I. Erabakiari bide emateko unea iritsi da. Herritarrok erabakitzeko eskubidea gauzatzeko lan egingo dugu. Gure esku hartzen dugu erabakitze prozesuak behar dituen baldintzak sortzeko eta garatzeko ardura eta, eragileekin eta erakundeekin batera, parte hartu eta ekarpenak egiteko konpromisoa, gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki arte. Orain arte baino hobeto aritzeko eta izandako gabeziak gainditzeko lan egingo dugu.
- II. Erabakitzeko eskubidea gauzatzeko aldera, gure etorkizun politikoari buruzko eztabaida publiko, plural eta gardena beharrezkotzat jotzen dugu, eta, ondorioz, gizartearen parte hartzea sustatu eta prozesuan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu. Eztabaida hori euskal erakunde eta mota guztietako eragileen esku-hartzearen bidez bideratu beharra dago, eta bururaino eramateko, hau da, erabakitzeko eskubidea egikaritzeko, tresna eraginkorrak antolatu eta herritarron esku jarri behar dira, azken batean, herritarrok gure estatus politikoari buruz zuzenean erabaki nahi dugulako, ezein aukerari uko egin gabe.

ITUNAREN OSAKETAN KONTUAN HARTU DIREN IDATZIAK

1) GEDren baitan herri/eskualde ezberdinetan onartu diren Erabakitzeko Eskubidearen aldeko adierazpenak: Tolosaldea, Getaria, Getxo, Irun, Lea-Artibai, Ugao, Orozko, Etxarri-Aranaz, Nafarroako 16 herrik osatutako adierazpena, etab.

2) Eragile eta erakundeek adostutakoak:

- Lizarrako Estatutua (1931)
- Euskadiko Lehen Estatutua (1936)
- Euskadiko Autonomi Estatutua (Gernikako Estatutua) (1979)
- Lizarra-Garaziko Hitzarmena (1998)
- Euskal Herriaren Eskubideen Karta (Udalbiltza) (2002)
- Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa eraberritzeko proposamena (2004)
- Bases para el diálogo y el acuerdo político (Loiolako akordioa) (2006)
- Ahotsak Emakume Taldearen adierazpena (2007)
- Erabakizaleak Legelari taldearen adierazpena (2014)
- Pacte Nacional pel Dret a Decidir (2016)